



DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAZIOA 2022

OSASUNA

1. Osasun-arloko ikerketa- eta garapen-proiektuetarako laguntzak 2
2. Droga-mendekotasunen prebentzio komunitarioko talde teknikoak sortzeko eta mantentzeko, adikzioen prebentzio komunitarioko programak garatzeko eta prebentziorako eta arrisku eta kalteen murrizketarako proiektuak, edo ohitura osasungarriak sustatzeko laguntzak 4
3. GIB/HIESA, C Hepatitisa (CH) eta sexu-transmisiozko infekzioak prebenitzera eta kontrolatzera bideratutako jarduerak ean garatzen dituzten irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakundeentzako laguntzak 6
4. Euskal Autonomia Erkidegoan gaixoen kolektiboan eta haien familien bizi-kalitatea hobetzeko jarduerak egiten dituzten eta irabazi-asmorik ez duten ekimen sozialeko elkarreentzako laguntzak 8
5. Euskal Autonomia Erkidegoko toki-esparruan osasuna sustatzeko dirulaguntzak 10
6. Elkarreki eta kooperatibei zuzendutako laguntzak, ikasleen artean jarduera fisikoa sustatzera eta sedentarismoa murriztera bideratutako partaidetza-proiektuak garatzeko 12
7. 2022ko arlo-sanitarioko profesionalak prestatzeko bekak eta laguntzak 14
8. Osasun-arloko irabazi-asmorik gabeko erakundeentzako laguntzak, erakunde horiek eratzeko edo jardunean jartzeko, eta osasun-arloko profesionalentzako etengabeko prestakuntza-jarduerak antolatuzeko 2022 urtean 16
9. Euskadiko osasun-sistemako langileek agindutako tratamendu medikoak betetzea errazteko 2021eko eta 2022ko laguntzak 18



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Osasun-arloko ikerketa- eta garapen-proiektuetarako laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2022ko apirilaren 5ekoa, Osasuneko sailburuarena, osasunaren alorreko ikerketa- eta garapen proiektuetarako laguntzen 2022eko deialdia arautzen duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperresteka)

Deialdia:

AGINDUA, 2022ko apirilaren 5ekoa, Osasuneko sailbuarena ([EHHA, 1765. zk, 2022/04/25ekoa](#))

EBAZPENA, 2022ko azaroaren 18koa, Osasuneko sailburuordearena ([EHHA, 4737. zk, 2022/11/04ekoa](#))

EMATE-EBAZPENA:

1. lerroa: "Ikerketa sanitarioko jarduerak sustatzea" ([EHAA, 407. zk, 2023/01/25ekoa](#))

2. lerroa: "Ikerketa sanitarioko jarduerak areagotzea" ([EHAA, 406. zk, 2023/01/25ekoa](#))

3. lerroa: "Osasunari buruzko ikerketa estrategikoa bultzatzea" ([EHAA, 409. zk, 2023/01/25ekoa](#))

4. lerroa: "Interes bereziko ekintza osagarriak" ([EHAA, 408. zk, 2023/01/25ekoa](#))

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu honetan adierazitako jarduketan azken helburua da pertsonen osasuna eta sistema sanitarioaren jarduera hobetzea, bai eta garapen sozioekonomikoari laguntzea ere, asistentzia sanitarioa eta bizi-kalitatea hobetuko duten produktuak, zerbitzuak eta prozesuak garatzearen bidez

2022eko deialdiak 2021ko deialdiko lau laguntza-lerrori eusten die, honako helburu hauekin: osasun-sistemaren ikerkuntza indartzea, I+Gko belaunaldi-erreleboa, RIS3ren hazkundera Osasun Pertsonalizatuaren arloan, I+Gko jardueretarako dedikazioa handitzea eta Euskadiko osasun-sisteman ikerketa-kultura indartzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Eskaeren guztizko kopurua (1., 2., 3. eta 4. lerroak): 140. Esleitutako proiektuen guztizko kopurua: 60.

« Ikerketa sanitarioko jarduerak sustatzea » izeneko 1. lerroan:

- Baliozko eskaeren kopurua: 72.
- Esleitutako proiektuen kopurua: 21, eta laguntzen lerro honen aurrekontuaren %18,60 bideratu da Talde gazteak sustatzea *susperraldian dauden taldeen sustapenera*.

«Ikerketa sanitarioko jarduerak areagotzea» izeneko 2. lerroan:

- Baliozko eskaeren kopurua: 10.



- Esleitutako proiektuen kopurua: 7.

«Osasunari buruzko ikerketa estrategikoa bultzatzea» izeneko 3. lerroan:

- Baliozko eskaeren kopurua: 56.
- Esleitutako proiektuen kopurua: 30.

«Interes bereziko ekintza osagarriak» izeneko 4. lerroan:

- Baliozko eskaeren kopurua: 2.
- Esleitutako proiektuen kopurua: 2.

Esleitutako 60 proiektuetatik 29tan, emakumeak ziren ikertzaile nagusiak (diruz lagundutako proiektuen %48,3).

140 proiektu hautagarrietatik soilik %42,8 finantzatu ahal izan da eskuragarri dauden baliabideekin. Erabilgarri zeuden funtsen %100 exekutatu da.

Hautatutako proiektuek, kalitate zientifiko altua edukitzeaz gain, inpaktu sozial handiko gai biomedikoak edo oro har osasun-arlokoak jorratzen dituzte, eta osasun-sistemaren jarduna nahiz herritarrei ematen zaien arreta hobetzeko xedea dute. Proiektuek honako eremu hauek hartzen dituzte: diagnostikoa eta/edo pronostikoa; gaixotasunen bilakaerari eta/edo kontrolari lotutako faktoreak; hainbat gaixotasunen tratamendu terapeutikoa (neurodegeneratiboak, besteak beste); medikuntza pertsonalizaturako biomarkatzaileak eta teknologiak; gaixotasunen arrisku-faktoreen identifikazioa (ingurumenekoak barne); iragarpen-ereduak; telemonitorizazioari aplikatutako adimen artifiziala; eraginkortasunaren eta kostuaren ebaluazioa, eraginkortasuna, inpaktua edo esku-hartzeen ezarpenaren ebaluazioa; zahartzea; patologiei buruzko hainbat alderdi, hala nola minbizia, gaixotasun arraroak, gaixotasun neurodegeneratiboak, obesitatea eta diabetesa; gailu medikoak; medikuntza birsortzailea eta terapia aurreratuak.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Sortzen ari diren taldeetan zenbat I+G proiektu	7	6
Osasuneko zenbat I+G proiektu integratu	2	3
Zenbat I+G proiektu biomediko	7	9
Osasun-zerbitzuetan zenbat ikerketa-proiektu	5	3
Ikerketa-jardueraren areagotze-kopurua	5	7
RIS3 estrategiaren barruan zenbat proiektu eta zenbat lankidetzak eta garapen-ekintza	15	30
I+G proiektuetako ehuneko zenbatean ikertzaile nagusia emakumezkoa	% 45	%48,3



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Droga-mendekotasunen prebentzio komunitarioko talde teknikoak sortzeko eta mantentzeko, adikzioen prebentzio komunitarioko programak garatzeko eta prebentziorako eta arrisku eta kalteen murrizketarako proiektuak, edo ohitura osasungarriak sustatzeko laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2022ko uztailaren 5eko Agindua, Osasuneko sailburuarena. Horren bidez, laguntza ekonomikoen deialdia egiten da talde teknikoak sortu eta mantentzeko, adikzioen prebentzio komunitarioko programak garatzeko eta arrisku eta kalteak prebenitu eta murrizteko proiektuak egiteko, bai eta jarduera-esparru horietan ohitura osasungarriak sustatzeko ere, 2022ko ekitaldian. (EHAA 138. zk., 2022ko uztailaren 18a).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

Deialdia: EHAA zkia 138. 2022ko uztailaren 18

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2022/07/2203256a.pdf>

4.- Diru-laguntzen programaren azalpen laburra eta helburuak

Honako hauei emango zaizkien laguntza ekonomikoak:

- EAEko toki-erakundeak, dela Adikzioen prebentzio komunitariorako talde teknikoak sortzeko edo mantentzeko, dela arriskuak eta kalteak prebenitzeko eta murrizteko programak eta esku-hartzeak garatzeko, dela Adikzioen tokiko planetan dauden jokabide osasungarriak sustatzeko. Plan horiek jarduketa egituratu eta koordinatuen multzo ordenatu bat osatzen dute, onartuta egongo dira edo egiteko prozesuan, eta udalerriek banaka edo mankomunitate egin eta garatuko dituzte.
- Irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakundeak, Adikzioen ondoriozko arriskuak eta kalteak prebenitzeko eta gutxitzeko proiektuak egiten dituztenak, eta jarduera-eremu horretan ohitura osasungarriak sustatzen dituztenak.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

1. Ekipo teknikoak sortzeko eta mantentzeko lerroa. Emakida-kopurua, toki-erakundeak: 35.

- (4) Arabako 3 udal eta Arabako Foru Aldundia
- Gipuzkoako 10 udal/mankomunitate
- Bizkaiko 21 udal/mankomunitate

Kapitulu honen diru-zuzkidura 1.174.135 eurokoa da. Emandako laguntza, guztira, eskabide guztien aurrekontuan jasotakoaren % 43,14 da (2.721.615 €).



2. Adikzioen prebenitzeko komunitarioko programak garatzeko eta ohitura osasungarriak sustatzeko lerroa. Ez da eskaerarik ezetsi. 43 programa, beste hainbeste toki-erakunderenak:

- Arabako 3 udal
- Gipuzkoako 17 udal/mankomunitate
- Bizkaiko 23 udal/mankomunitate

Kapitulu honetako diru-zuzkidura 561.765 eurokoa da. Emandako laguntza, guztira, eskabideen aurrekontuan jasotakoaren % 15,71 da (3.574.346 €).

3. Arrisku eta kalteak prebenitzeko eta murrizteko proiektuak egiteko eta ohitura osasungarriak sustatzeko lerroa. 36 entitateak izan dira onuradun, 85 proiekturekin. Entitate batzuek proiektu bat baino gehiago aurkeztu dituzte. Aurkeztutako proiektu guztiek jaso dute diru-laguntza.

Kapitulu honetako diru-zuzkidura 1.118.500 €-koa izan zen. Emandako laguntza, guztira, eskabide guztien aurrekontuan jasotakoaren % 25,19 da (4.439.386 euro).

Bereziki aipatzen da deialdia oso berandu argitaratu dela, zuzendaritzarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik, eta atzerapenak egon direla emandako laguntzak ordaintzeko orduan; finantzaketa-falta hori dela eta, entitate onuradunek ezin izan dute, askotan, beren proiektua diseinatu, ezta, ondorioz, eskaera aurkeztu ere.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea:	Aurreikuspena	Emaitza
Toki-erakundeei emandako emakiden kopurua:		
II Kapituluak	36	35
III Kapituluak	40	43
Proiektuen kopurua (III kapituluak)	160	189
Gizarte-ekimeneko erakundeen kopurua (IV: kapituluak)	35	36
Proiektuen kopurua (IV. kapituluak)	75	85



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

GIB/HIESA, C Hepatitisa (CH) eta sexu-transmisiozko infekzioak prebenitzera eta kontrolatzera bideratutako jarduerak ean garatzen dituzten irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakundeentzako laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2022ko maiatzaren 3koa, Osasun sailburuarena; honen bidez, laguntzetarako deia egiten zaie EAEn GIB/hiesa, C hepatitis eta sexu bidez transmititzen diren infekzioak (STI) prebenitzeko eta kontrolatzeko jarduerak egiten dituzten irabazi asmorik gabeko eta ekimen sozialeko erakundeek.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

Deialdia: AGINDUA, 2022ko maiatzaren 3koa, Osasuneko sailburuarena (<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/05/2202077e.shtml>)

Emate-ebazpena: EBAZPENA, 2022ko urriaren 10ekoa, Osasuneko sailburuordearena (<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/10/2204550e.shtml>)

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Herri Administrazioek martxan jartzen dituztenak ezinbestekoak dira infekzio horren transmisioa prebenitzeko ahalegin bateratu horretan laguntzeko eta birus eramaileen egoera hobetzeko.

Hona hemen laguntza horien jomugan daudenak:

- Gizonekin sexua daukaten gizonei zuzendutako proiektuak, kontuan hartuta zenbaterainoko garrantzi epidemiologikoa duen giza-talde horrek gaur egun.
- GIBari dagokionez egoera zaurgarrian dauden beste giza-talde batzuei zuzendutako proiektuak; kasurako, etorkinak, drogak bide parenteraletik hartzen dituztenak eta prostituzioan lan egiten dutenak.
- GIBaren, CHaren eta STIen infekzioen diagnostiko goiztiarrera bideratutako proiektuak
- GIBa duten pertsonen babes psikologikoa eta soziala emateko proiektuak.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Hortaz, 300.000,00 €-ko diru-laguntza jaso dute hainbat proiektu eta jarduerak. Horien bitartez, erakundeek behar-beharrezkoa den lana bideratzen dute, Administrazioa ez baita heltzen zenbait giza-talderi babesa ematera eta horiei prebentzioan aurrera egiten laguntzera.

Dirulaguntza guztiaren %35a harreman homosexualak dituzten gizonei zuzendutako proiektuei bideratu da, %19a prostituzioan aritzen diren zuzendutako proiektuei, %16a droga injektatzaileei zuzendutakoei,



%8a kanpotarrei zuzendutakoei, %12a diagnostiko berantiarra laguntzeko proiektuei eta %10a laguntza emozionala lantzen duten proiektuei.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Diru laguntza jasotzen duten elkarte kopurua	16	16



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Euskal Autonomia Erkidegoan gaixoen kolektiboen eta haien familien bizi-kalitatea hobetzeko jarduerak egiten dituzten eta irabazi-asmorik ez duten ekimen sozialeko elkarteentzako laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2022ko maiatzaren 24koa, Osasuneko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko gaixoen eta euren familien bizi-kalitatea hobetzea xede duten irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko elkarteei zuzendutako laguntzak arautu eta deialdia egiten duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperresteka)

Deialdia:

AGINDUA, 2022ko maiatzaren 24koa, Osasuneko sailburuarena (EHAA, 117. zk., 2022ko ekainaren 17koa)

Emate-ebazpena:

EBAZPENA, 2022ko urriaren 5ekoa, Osasuneko sailburuordearena (EHAA, 199. zk., 2022ko urriaren 18koa)

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Dirulaguntza lerro honen helburu nagusia da gaixotasunen bat duten pertsona-kolektiboen eta haien familien ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzera bideratutako jarduerak finantzatzen laguntzea Zehazki:

- Gaixotasunen bat duten pertsonen kolektiboetara eta haien familiei trebetasunak eta baliabideak garatzen laguntzera bideratutako jarduerak, beren burua zaintzeko ahalmena maximizatzeko eta autonomia areagotzeko.
- Kaltetutako pertsonen behar soziosanitarioak asetzen laguntzea eta horiek bideratzea, ikuspegi osasungarri batetik, osasuna sustatzearen helburu komunitarioen ikuspegitik.
- Gaixoei eta haien familiek gaixotasunari buruz, haren arrisku-faktoreei buruz eta bizi-ohitura egokienei buruz duten ezagutza eta informazioa areagotzea.
- Kaltetutako pertsonen osasun-desberdintasunak murriztea eta genero-ikuspegia txertatzea.

Gaixoen elkarteak patologia bera duten pertsona fisikoen taldeak dira eta honako helburu hauek dituzte: dena delako gaixotasuna eta berau sendatzeko tratamenduak hobeto ezagutzeko lan egitea, gaixoei elkarri laguntzea, herritarrei gaixotasuna prebenitzeko argibideak ematea eta herritarren ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzea.



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

2022an lortu nahi ziren helburuek diruz lagundutako 65 proiektu hartzen zituzten kontuan programa ebaluatzerakoan. Guztira 85 proiektu lortu dira, eta, beraz, dagokion aurrekontu-programan jasotako aurreikuspenen betetze-maila gainditu da. Deialdiaren % 100 esleitu da, guztira 300.000 euro.

Hainbat patologia dituzten paziente eta senideei laguntzeko jarduerak diruz lagundu dira, hala nola:

- minbizia
- diabetesa
- buru- eta portaera-nahasmenduak
- nerbio-sistemaren eta sistema osteomuskularraren nahasmendua
- elikadura-nahasmenduak, etab.

Honako hauek izan dira diruz lagundutako jarduera nagusiak:

- gaixoentzako eta familiartekoentzako autolaguntza eta babes-taldeak
- laguntza psikologiko eta soziala, familia-unitateko pertsona guzien bizi-kalitatea handitzeko
- talde-terapiak
- pazienteentzako eta familiartekoentzako prestakuntza-hitzaldiak
- gaixotasunei buruzko informazio eta sentsibilizazioa
- informazio-gida espezifikoaren prestaketa

Elkarteek aurkeztutako memorietan zehazten dira dirulaguntzen emaitzak.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Diruz lagundutako proiektuak	65	85



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Euskal Autonomia Erkidegoko toki-esparruan osasuna sustatzeko dirulaguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2022ko abuztuaren 30ekoa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baitira 2022ko ekitaldiko dirulaguntzak emateko deialdiko oinarriak, Euskal Autonomia Erkidegoko tokian tokiko parte-hartze komunitarioko prozesuen esparruan garatzen diren osasun-sustapeneko jarduketak egiteko

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

Deialdia:

AGINDUA, 2022ko abuztuaren 30ekoa, Osasuneko sailburuarena (EHAA, 179. zk., 2022ko irailaren 19koa)

Emate-ebazpena:

EBAZPENA, 2022ko abenduaren 12koa, Osasuneko sailburuordearena (EHAA, 249. zk., 2022ko abenduaren 30ekoa)

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza hauen xedea da honako hauek finantzatzea 2022ko ekitaldian:

- a) Parte-hartze komunitarioko prozesuak sortzera eta/edo dinamizatzen bideratutako jarduketak, osasuna sustatzeko ekintzak eta estrategiak tokian-tokian planifikatu eta garatzeko.
- b) Osasuna sustatzeko jarduketak, zeinek, helburu komunitarioak izanda, komunitatearen behar, asmo, arazo edo bere interesekoak diren gaiei erantzuten baitiete eta parte-hartze komunitarioko prozesuen esparruan garatzen baitira.

Parte-hartze komunitarioko prozesua, aurrerantzean PKP, egitura inklusibo eta partehartzailea da, eta komunitateko hainbat eragile biltzen ditu, hala nola, administrazioak, hainbat esparru edo sektore (hezkuntza, gizartea, osasuna, kultura, ekonomia...) eta herritarrak, gizarte-erakundeak barne, komunitatearen behar, asmo, arazo edo bere interesekoak diren gaiei erantzuteko xedearekin.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

2022an lortu nahi ziren helburuek diruz lagundutako 40 proiektu hartzen zituzten kontuan programa ebaluatzerakoan. Guztira 40 proiektu lortu dira, eta, beraz, dagokion aurrekontu-programan jasotako aurreikuspenen betetze-maila gainditu da. Deialdiaren % 100 esleitu da, guztira 250.000 euro.

Honako hauek izan dira diruz lagundutako jarduera nagusiak:

- parte-hartze komunitarioko prozesuen sormena eta/edo dinamizazioa



- osasuna sustatzeko ekintzak tokiko parte-hartze prozesuetan lehenetsitakoak

Laburbilduz, esan daiteke bidalitako memorien ebaluazioak oinarri gisa balio duela dirulaguntza horiei eta euren lotutako emaitzei buruzko iritzi positiboa emateko.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Diruz lagundutako proiektuak	40	40



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Elkarteei eta kooperatibei zuzendutako laguntzak, ikasleen artean jarduera fisikoa sustatzera eta sedentarismoa murriztera bideratutako partaidetza-proiektuak garatzeko

2.- Araua

AGINDUA, 2022ko abuztuaren 30eko, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baitira elkarte eta kooperatibei zuzendutako laguntzak eta egiten baita laguntza horien deialdia, EAeko ikasleen jarduera fisikoa sustatzera eta sedentarismoa murriztera bideratutako partaidetza-proiektuak garatzeko 2022-2023 ikasturtean zehar

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena argitaratzea (EHAari Hiperesteka)

Deialdia:

AGINDUA, 2022ko abuztuaren 30ekoa, Osasuneko sailburuarena (EHAA, 177. zk., 2022ko irailaren 15ekoa)

Emate-ebazpena:

EBAZPENA, 2022ko abenduaren 8koa, Osasuneko sailburuordearena (EHAA, 1. zk., 2023ko urtarrilaren 2koa)

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Dirulaguntza honen helburua da toki-eremuko eta osasun-arlokoak ez diren gainerako eremuetako jarduketetan osasuna indartzea.

Laguntza horien helburua da proiektu hauek finantzatzea:

- 1) Eskola-bideak sortu eta dinamizatzeko parte hartzeko proiektuak garatzea, hiri-espazioek mugikortasun aktibo eta segururako eskaintzen dituzten aukerak aprobetxatzeko.
Eskola-bideak dira ikasleek ikastetxera modu aktiboan (oinez, gurpil-oholez, bizikletaz, etab.) joan-etorrietan erabil ditzaketen ibilbide zehatzak, aurrez finkatuak eta markatuak, segurtasunez eta autonomiaz, eremu publikoaren erabilera eta gozamina berreskuratuz.
- 2) Ikastetxeetako jolastokiak dinamizatzea eta/edo, ikaskuntza, jolasa, mugimendua eta kalitatezko harremanak eta esperientziak eraikitzeke gunee inklusiboetan eraldatzera bideratutako parte hartzeko proiektuak garatzea, eskola-orduetan zein horietatik kanpo erabiltzeko, betiere oinarritzat harturik berdintasuna eta aniztasunarekiko errespetua (kultura, etnia, adina, sexua, desgaitasuna, etab.) eta ikasleei eta haien familien intereseei eta beharrei egokituak.

Proiektu horiek honako helburuak izango dituzte:

- 1) Ikastetxeko ikasle guztien jolas-aukerak, jarduera fisikoa eta elkarbizitza handitu.



- 2) Neskek jarduera fisikoa egitea berariaz sustatu, jarduera ezaren ratioa handiagoa baita kolektibo horretan.
- 3) Mugimendua eta jolas aktiboa sustatu ikasle helduenen edo bigarren hezkuntzako ikasleen artean, adin-tarte horretako sedentarismorako joera saiheste aldera.
- 3) Jarduera fisikoa familian egitea bultzatzera bideratutako jarduerak sustatu, hala nola mendi- edo bizikleta-irteerak, ibilaldiak irristailuetan edo familian egiteko jolas-jarduerak, besteak beste.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Laguntza hauek urte anitzekoak dira, ikasturteko iraupen bera dute eta 2023ko ekainean bukatuko dira, proiektuaren justifikazioa aurkezten dutenean.

2022an, eskaerak aurkezteko epea zabaldu zen (106 eskari). 2023ko hasieran esleipen-ebazpena eman da (30 proiekturi eman zaie laguntza), eta esleitutako kopuruaren % 70 ordaindu da (95.200 euro).

Honako hauek izan dira diruz lagundutako proiektu nagusiak:

- proiektuaren dinamizazioa eta koordinazio teknikoa
- ikastetxearen inguruan eta jolas-tokian zer mugikortasun dagoen aztertzea
- solasaldiak, tailerrak edo komunikazio-kanpainak antolatzea
- behar den materiala eskuratzea
- mugikortasun aktiboa bultzatzen duten ikastetxeetako espazioak egokitzea

2022an bukatu zen 2021-2022 ikasturteko deialdia, justifikazioak aurkeztu eta esleitutako % 30 ordaindu ondoren (40.800 euro). Bidalitako memorien ebaluazioan oinarrituz esan daiteke positiboak izan direla dirulaguntza hauek eta beraiei lotutako emaitzak.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Diruz lagundutako proiektuak	25	30



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

2022ko arlo-sanitarioko profesionalak prestatzeko bekak eta laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2022ko ekainaren 7koa, 2022. urtean arlo sanitarioko profesionalak prestatzeko bekak eta laguntzak emateko deialdia egin eta arautzen duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperresteka)

Deialdia:

AGINDUA, 2022ko ekainaren 7koa, Osasuneko sailburuarena ([EHAA, 168. zk., 2022/09/1ekoa](#))

Emate-ebazpena:

EBAZPENA, 2022ko azaroaren 7koa, Osasuneko sailburuordearena ([EHAA, 224. zk., 2022/11/23koa](#))

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

EAEko arlo sanitarioko profesionalak prestatzeko banakako laguntzak eta bekak ematea. Prestakuntza-jarduerak 2022an hasi behar dira, modalitate hauetakoren batean:

- Estatuko unibertsitate-ikastegiekin edo Osasun Ministerioaren mendeko osasun-institutuekin, edo autonomia-erkidegoen mendeko osasun-eskolekin emandako graduondoko ikastaroetan parte hartze; edo aipatutako erakundeekin ematen ez badituzte ere, hitzarmen baten bitartez halako izaera lortzen duten ikastaroetan parte hartzea, baldin eta unibertsitatearen graduondoko titulu propioen bat sortzen badute.
- Atzerriko unibertsitateekin emandako graduondoko ikastaroak egitea, Sailarentzat estrategikoak diren arloetan konpetentzia aurreratuak eskuratzera bideratuta badaude.
- Atzerriko zentro sanitarioetan edo ikerketa sanitarioko zentroetan prestakuntza-egonaldiak egitea, osasun-zientziekin lotutako arlo guztietan ezagutzak eta trebetasunak areagotzera bideratutako prestakuntza-programa indibidualizatuak egiteko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

2022ko ekitaldirako deialdiaren zenbatekoa 108.010 eurokoa izan zen (64.806 euro 2022ko aurrekontuaren kontura eta 43.204 euro 2023rako konpromiso-kredituei zegozkien). Deialdia ebatzi ondoren, 80.482,04 euro esleitu ziren, aurrekontuaren %74,51.

Guztira, 26 beka eman dira, aurkeztutako 66 eskaeretatik. 13 laguntza eman ziren Estatuto unibertsitate-zentroetan graduondoko ikastaroak egiteko, eta 3 laguntza atzerriko zentroetan prestakuntza-egonaldiak egiteko.



Lurraldearen eta urtearen arabera banaketa honako hau da:

Lurraldea	Onuradunen kop.	2022ko ekialdia	2023ko ekialdia	Guztira
Araba	3	6.657,16€	4.438,10€	11.095,26€
Bizkaia	19	37.666,01€	25.110,68€	62.776,69€
Gipuzkoa	4	3.966,05€	2.644,04€	6.610,09€
Osoa	26	48.289,22€	32.192,82€	80.482,04€

40 eskaera ukatu dira; horietatik 16 Arabakoak dira, 17 Bizkaikoak eta 7 Gipuzkoakoak. Bestaldetik, onuradun batek uko egin dio emandako bekari edo/eta dirulaguntzari, eta ez da gora jotzeko errekurtsorik aurkeztu.

Deialdia urte anitzekoa denez, diruz lagundutako prestakuntza-jarduera 2022ko ekitaldian hasi behar da, baina 2023an amai daiteke, eta jasotako azken justifikazioak oraindik ez dira nahikoak aurreikusitako mailara iritsi den ala ez egiaztatzeko.

Eskatutako laguntzen kopuruak behera egin badu ere, osasun-arloko langileen prestakuntzak beti laguntzen du:

- Eguneratzea eta hobetzea profesionalek dituzten ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak ezagutzaren aurrerapenaren aurrean, zientziaren eta teknologiaren bilakaera dela eta.
- Gizartearen eta osasun-sistemaren eskaerei eta premiei erantzutea.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Atzerriko zentroetan egonaldiak egiteko beken eta laguntzen kopurua.	3	3
Estatuko unibertsitate-zentroetan graduondoko ikastaroak egiteko emandako beken eta laguntzen kopurua.	30	23
Atzerriko unibertsitate-zentroetan graduondoko ikastaroak egiteko emandako beken eta laguntzen kopurua.	3	0
Jasotako prestakuntza beraien lanposturako eraginkorra izan dela uste dutenen ehunekoa. *Prestakuntza-jarduera 2022an amaitzen denean baloratuko da (ekaina-iraila)	>75%	(*)
Familia eta komunitateko medikuntzaren garapena sustatzeko diruz lagundutako prestakuntza-jardueren ehunekoa.	>20%	23,08%
Osasunean genero-desberdintasunak murrizten laguntzen duten prestakuntza-jardueren ehunekoa.	>20%	7,69%



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Osasun-arloko irabazi-asmorik gabeko erakundeentzako laguntzak, erakunde horiek eratzeko edo jardunean jartzeko, eta osasun-arloko profesionalentzako etengabeko prestakuntza-jarduerak antolatzeke 2022 urtean

2.- Araua

AGINDUA, 2022ko ekainaren 14koa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez laguntzak iragartzen eta arautzen baitira arlo sanitarioko irabazi-asmorik gabeko erakundeen eraketarko edo funtzionamendurako eta osasun-langileen etengabeko prestakuntzako jarduerak antola ditzaten 2022an.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

Deialdia:

AGINDUA, 2022ko ekanaren 14koa, Osasuneko sailburuarena (EHA, 168. zk., 2022/09/1ekoa)

Emate-ebazpena:

EBAZPENA, 2022ko abenduaren 13koa, Osasuneko sailburuordearena (EHA, 1. zk., 2023/01/2koa)

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Honako gastu hauen ondoriozko defizita finantzatzeko laguntzak ematea:

- a) Egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten irabazi-asmorik gabeko profesionalen elkargoak, elkarteak eta erakunde zientifikoak eratzeko edo martxan jartzea, osasun arloko profesionalen prestakuntza eta eguneratze teknikoak ematen dietenak edo ikerketa sanitarioa sustatzen dutenak, betiere.
- b) Osasun-arloko profesionalentzako etengabeko prestakuntzako jarduerak antolatzea 2022. urtean, Euskal Autonomia Erkidegoan, eta horiek Profesio Sanitarioen Etengabeko Formakuntzako Euskal Kontseiluak egiaztatzea. ei zuzendutako etengabeko prestakuntzako jarduerak antolatzea 2020. urtean, Euskal Autonomia Erkidegoan.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

2022. urtean, 79.409,00 € erabili ziren Aginduaren helbururako. Deialdia ebatzi ondoren 45.433,37€ esleitu ziren, aurrekontuan jasotakoaren %57,21.

Guztira, 26 eskabidetatik 13 eman dira: erakunde profesional, elkarte eta entitate zientifikoaren eraketa edo funtzionamendurako, 7 eskabidetatik 5; eta etengabeko prestakuntzako jarduerak antolatzeke, 19 eskabidetatik 8.



Honela geratzen da emandako zenbatekoaren eta lurraldearen araberako banaketa laguntza-modalitateetarako:

<i>Lurraldea</i>	<i>Onuradun-kop.</i>	<i>kurtsoak</i>	<i>Erakundeak</i>	<i>Guztira</i>
Araba	2	1.053,67€	11.000,00€	12.053,67€
Bizkaia	8	8.073,89€	22.000,00€	30.073,89€
Gipuzkoa	3	524,21€	2.781,60€	3.305,81€
Osoa	13	9.651,77€	35.781,60€	45.433,37€

13 eskaera ezetsi dira; horietatik 4 Arabakoak dira, 4 Bizkaikoak eta 5 Gipuzkoakoak.

Eskatutako laguntzen kopuruak behera egin badu ere, osasun-arloko langileen prestakuntzak honako hauetan laguntzen du beti:

- Ezagutzaren aurrerapenaren aurrean profesionalek dituzten ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak eguneratzea eta hobetzea, zientziaren eta teknologiaren bilakaera dela eta.
- Gizartearen eta osasun-sistema beraren eskaerei eta premiei erantzutea.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
1. Eratzeko edo funtzionatzeko laguntzak:		
Erakundeak eratzeko edo funtzionatzeko diru-laguntzen kopurua.	7	5
Diruz lagundutako erakundeek Osasun Sailaren ildo estrategikoetan gaitasun profesionalak hobetzeko egin dituzten prestakuntza-jardueren kopurua.	90	64
2.Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Euskal Kontseiluak egiaztatutako etengabeko prestakuntzako jarduerak antolatzeako diru-laguntzak:		
Emandako diru-laguntzen kopurua.	20	8
Diru-laguntza jasotzen duten prestakuntza-jardueretan emandako orden guztizko kopurua.	>559	210
Diru-laguntza jasotzen duen prestakuntza eman zaien lanbideen kopurua.	>8	4
Azalaratzen ari diren gaixotasunekin lotuta diruz lagundutako prestakuntza-jardueren ehunekoa.	>25%	0%
Osasunean genero-desberdintasunak murrizten laguntzen duten prestakuntza-jardueren ehunekoa.	>20%	0%



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Euskadiko osasun-sistemako langileek agindutako tratamendu medikoak betetzea errazteko 2021eko eta 2022ko laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2022ko apirilaren 12koa, Osasuneko sailburuarena, agindutako tratamendu medikoak betetzea errazteko 2021eko eta 2022ko laguntzak emateko deialdia egiten duena. (EHAA 80. Zk., 2022ko apirilaren 26a)

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

Deialdia: EHAA 80. Zk., 2022ko apirilaren 26a

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2022/04/2201776e.pdf>

Emate-erabakia:

<https://www.euskadi.eus/agindutako-tratamendu-medikuei-atxikidura-errazteko-laguntzak-2022ko-deialdia/web01-a2inform/eu/>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntza programa honen helburua da gaixotasun- eta behar-egoera objektiboan dauden pertsonen Euskadiko Osasun Sistemako langileek agindutako tratamendu medikoak bete ditzaten erraztea.

Agindutako tratamendu mediko bati atxikitzearen ondorioz ordaindu diren zenbatekoak ordainduko dira, finantzaketa publikoa behar duten tratamendu farmakologikoei, produktu dietetikoei eta efektu eta osagarriei dagokienez.

Deialdi honetako laguntzen subjektuak dira gaixotasun- eta premia-egoera objektiboan dauden pertsonak, baldin eta 447/2013 Dekretuaren 3.1 artikuluan adierazitako baldintzak betetzen badituzte. Baldintza horiek jarraian deskribatzen dira:

- Osasunaren babeserako eta osasun-arretarako eskubidearen titularrak, baldin eta Gizarte Segurantzako pentsiodunak badira eta urtean 18.000 eurotik beherako diru-sarrerak badituzte, eta Euskadiko Osasun Sistema bermatzaile gisa duten banako osasun-txartelaren titularrak badira.
- Osasunaren babeserako eta osasun-arretarako eskubidearen titularrek, baldin eta legezko langabezia-egoeran badaude, urtean 18.000 eurotik beherako diru-sarrerak badituzte eta Euskadiko Osasun Sistema bermatzaile gisa duten banako osasun-txartelaren titularrak badira.
- Osasunaren babeserako eta osasun-arretarako eskubidearen titularrak, baldin eta diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen badute laneko diru-sarreraren errenta osagarriaren modalitatean, eta Euskadiko Osasun Sistema bermatzaile gisa duten banako osasun-txartelaren titularrak badira.



- Aurreko hiru ataletan aipatutako osasun-babeserako eta -arretarako eskubidearen titularren onuradunak, Euskadiko Osasun Sistema bermatzaile gisa duten banako osasun-txartelaren titularrak badira.
- Espainian erregistratuta ez dauden eta egoiliar gisa baimenik ez duten atzerritarrak, Espainiako nazionalitatea duten pertsonen baldintza berberetan osasun-babeserako eta osasun-arretarako eskubidea dutenak, eta eskubide hori aitortzen duen Euskal Autonomia Erkidegoak emandako egiaztagiria dutenak.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean.

2023/02/08an, 135.222 pertsona zeuden farmazian ordaintzetik salbuetsita Euskadin, taula honetan ikus daitekeenez.

Farmaziatik salbuetsita dauden pentsiodunak. Titularra	88.352
Farmaziatik salbuetsita dauden pentsiodunak. Onuraduna	8.657
> = % 33ko desgaitasuna duten adingabeak	3.637
Ardurapeko seme-alabagatiko prestazioen hartzailea. Titularra	20.747
Ardurapeko seme-alabagatiko prestazioen hartzailea. Onuraduna	13.829

Laguntzak eska ditzaketen adingabeen (pentsiodunak) emaitza horri gehitu behar zaio 2021etik aurrera farmazia-koordainketatik salbuetsita daudenak handitzeari buruz esandakoa. Azken hori kontuan hartuta, farmazia-koordainketarako laguntzak 2023an eska ditzaketen pentsioen kopurua (hedaduraz, pentsiodunak) 72.300 da.

Horrez gain, langabezian dauden pertsonen kopurua (laguntzak eska ditzaketen beste kolektibo potentzialetako bat) nabarmen murriztu da, 2012ko abenduan 169.078 izatetik 2022ko abenduan 110.798 izatera igaro baita.

Ondorioz, 2022ko deialdian aurkeztutako eskabideen bolumena 2021ekoa baino apur bat txikiagoa izan da. Zehazki, 43.106 eskabide aurkeztu dira, hau da, aurreko deialdian baino % 6,7 gutxiago.

2023ko martxoan, EAEko herritarrek aurkeztutako eskaeren % 100 kudeatu dira. Egun horretan, 2022ko ekainaren 10a baino lehen aurkeztutako eskaerak ebatzi dira, hau da, 25.131 eskaera ebatzi dira, % 82,2k aldeko ebazpena eta % 17,8k kontrakoa.

2022an emandako aldeko ebazpenen zenbatekoei dagokienez, honako hauek dira zifrak: 2021eko deialditik 1.377.243,19 eurokoa izan zen zenbatekoa (bigarren epea); eta 2022ko deialditik 694.244,53 eurokoa (lehen epea).



2022ko ekitaldiko aurrekontu-betearazpenean, 2021eko deialdiaren bigarren epeko eta 2022ko deialdiaren lehen epeko ordainketak barne, bai eta 2021eko deialdiaren lehen epeko ebazpen batzuk ere, 2.101.988,34 euroko obligazioak onartu dira, hau da, aurrekontu eguneratuaren % 93,9 eta Baimendutakoaren % 99,7.

Uste da 2022ko deialdiaren aldeko ebazpenei esker, batetik, gaixotasun- eta premia-egoeran dauden 35.000 pertsona inguruk eutsi ahal izango diotela Euskadiko Osasun Sistemako langileek agindutako tratamendu medikoari, eta, bestetik, agindutako tratamendu medikoen jarraipena ez egitetik eratorritako balizko ondorio negatiboak saihestu ahal izango direla. Tratamendu horien balorazio positiboa ez ezik, beste irizpide batzuk ere kontuan hartuta egin behar da, hala nola, gizarte-ongizatea, kalitate handia, etab. Horregatik guztiagatik, ikus daiteke programa honek eragin positibo handia duela.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Aurreikusitako eskaeren kopurua	58.000	43.106